

Perfektuak



Ez dizut eskatzen erantzuteko.

Gauza bakar bat eskatzen dizut: pentsatzeko.

Zure familiaz pentsatzeko, zure gurasoez, zure anai-arrebez.

Pentsa ezazu haietaz. Egin gogoeta.

Badakit zure gurasoak onak direla, zintzoak; badakit iritzi on samarra duzula zure anai-arrebez.

Baina aitortu beharko duzu: akatsak dituzte. Akats txikiak. Garrantzirik gabeko gauzak.

Honelakoak: hatza sudur zuloan sartzea, zopa zurrupatzea, edo zu telebista kate bat ikusten ari zarenean haiek kalakan eta teman hastea katez aldatzeko.

Txikikeriak, baina akatsak betiere.

Munduko familia guztiek dituzte akatsak.

Nireak izan ezik.

Nire gurasoek ez dute akatsik.

Nire arrebek ere ez.

Laburbilduz, perfektuak dira, akasgabeak.

Ni ez.

Nik Alex dut izena, Agrimensores kaleko 5. zenbakian bizi naiz, eta ebaluazio honetan bi suspentso atera ditut. Hizkuntza eta Matematika.

Bi kalabaza, zein baino zein handiagoa. (...)

* * *

Zuk nire familia ikustea nahi dut. Ezagutzea.

Esan dizut, bai, perfektuak direla, baina hori ez da aski, ikusi egin behar dituzu.

Nire aita-amek Pe eta Zeta dute izena. Tira, egia esanda, horiek ez dira haien izenak, baina denek hala deitzen diete. Gure aitari Pe deitzen diogu, abizena Perez duelako. Gure amari Zeta, abizena Zuñiga duelako.

Harrigarriena zera da: nire arrebek eta nik ere hala deitzen diegula.

Pe eta Zeta ez dira inoiz haserretzen. Oso irekiak dira. Ez dute inoiz oihurik egiten. Asko gustatzen zaie txantxak egitea eta gurekin batera belar gainean iraulka ibiltzea.

Nire arrebek Delia eta Silvia dute izena. Hamalau urte ditu bata, eta hamabost besteak. Ez dira bikiak, baina hala direla ematen du.

Zetak dioten bezala, etxean harmonia da nagusi. Zetarentzat "harmonia" hitza oso garrantzitsua da. Perentzat ere bai. Esaten du harmonia unibertsoan dagoela eta zenbakien bidez ere kalkula daitekeela. (...)



—Gurasoek uste dute kezka bat dudala eta horregatik suspenditu ditudala Hizkuntza eta Matematika —esan diot Rafa Panochari.

—Zigortu al zaituzte?

—Ez.

—Harritzekoa zure gurasoak hain perfektuak izatea.

—Bai, eta zer?

—Ezer ez.

—Nik uste ongi dagoela ez zigortzea, eta ez haserretzea eta nirekin ulerberak izatea.

—Esan al dut nik gaizki dagoela?

—Ez duzu esan, baina hala ematen du.

Rafa Panocha eta biok hain lagun minak gara ezen egun osoa ika-mikan ematen baitugu. Ni ados nago berarekin, bai, nire familia perfektuegia da, baina gauza bat da nik esatea eta beste bat berak esatea, Rafa ez baita nire familiakoa.

Zera gertatzen zaigu guztioi: igual ez dugu gogo handirik gure familia defendatzeko, baina aski da norbait kritikatzeko hastea gu eroen pare hasteko gure familiaren defentsan. (...)



Gaur, Rafa Panocha zigortuta dago, sei suspentso atera dituelako. Sei kalabaza, zein baino zein handiago.

Aste osoan etxetik ez ateratzea da zigorra, baina Rafari berdín zaió.

—Nik uste, akats bat edo beste izatea ez dela txarra —hori da Rafa Panocharen teoria nagusia.

—Badakit —esaten diot nik.

—Badakizu gauza bat, Alex? Zure etxean ez dira dirudien bezain perfektuak —esan du orain.

—Baina, baina, arestian kontrakoa esan duzu eta.

—Tira, ba, iritzia aldatzen ari naiz. Orain ohartu naiz akatsak dituztela.

Mundu guztiak ditu akatsak; kontua da ez dizkiogula oraindik aurkitu.

—Hala da, nik hamaika urte daramatzat haiekin bizitzen, eta oraindik ez diet bat bera ere ikusi.



Rodrigo Muñoz Aña
Perfektuak
Giltza (egokitua)

1 Erantzun galderei.

- a Nork kontatzen du istorioa?
☐ Alexek. ☐ Rafa Panachak. ☐ Alexek eta Rafa Panachak.
- b Zer iritzi dauka protagonistak bere familiari buruz? Eta bere buruari buruz?
☐ Familia akasgabea duela uste du, baina bera akasduna dela.
☐ Familia akasgabea duela uste du, eta bera ere ia-ia akasgabea.
- c Zer iritzi dauka bere lagunak protagonistaren familiari buruz?
☐ Rafa Panachak uste du perfektuegiak direla.
☐ Rafa Panachak uste du ez direla hain perfektuak.

2 Norbaiti irakurgaiaren gaia zein den azaldu beharko bazenio, nola laburbilduko zenioke esaldi batean? Irakurri aukerak, eta hautatu egokiena.

- a Bi mutikoren arteko harremanaren berri ematen digu.
- b Familia perfektuak nolakoak diren kontatzen zaigu.
- c Mutiko batek bere familia nolakoa den azaltzen digu, eta berak duen garabehera baten berri ematen digu.